

Nafarroa hobe bakarrik

IÑAKI ZABALETA URKIOLA



GERO eta konbentzi-
tuagoa nago Nafarroa ez dela
Euskadi deitzen den Euskal
Autonomi Elkartean sartuko.
Konstituzioak eskeintzen
dion «disposicion adicional» famatu haren bidez.
Zenbat gezur esan zizkiguten alderdi batzuk orain
dela hamairu urte! «Estatutoarekin Nafarroa
Euskadin» oihukatzen zuten EAJ eta EE alder-
diek. Dena gezurra. Carlos Garaikoetxeak ere
erantzukizun handia izango du historiaren au-
rean aukera historiko gura hartzeagatik.

Baina egunak datozten bezala hartu behar eta
Nafarroak bere autonomi bideari bakarrik ekin
zion. Gaur, 1992an, Nafarroa sekulan baino urru-
tiago dago Euskaditik (eta Euskadi hori probin-
tziaik dira zorionez, eta apropos diot zorionez).
Iruñeko lagunekin mintzatuz, beraienart Bizkaia
oso urrun dago. Bilboko arazoak Sorriakoak be-
zain ezagunak dira (oso gutxi) eta Euskadiko po-
litika ere oso urrun geratzen zaie nafarrei, Ma-
drilekoa baino urrunago.

Nafarroa Euskadirekin elkartzeko bidea 'vas-
conavarro' bidea izango da izatekotan, hau da, bi
buru eta bi zapelazena baita gauzatzen elkartuta. Bide
zaharra hauxe, Franco garaian zegoena. Horren-
beste Estatuko eta horrenbeste borroka 'vascona-
varro' elkartasuna lortzeko bakarrik? Bidaia hori
egiteko ez genuen asto horren beharrik. Baina
zuhurki pentsatuz, zer eskeini diezaioke Euska-
dik Nafarroari batasunaren truke? Deus gutxi.
Horretarako hobeki dago Nafarroa bakarrik.

Adabakiak

JOAN MARI TORREALDAI



AHV eta *Hunosa* ditut
gogoan. Hauen inguruko be-
rriez begiatu eta belarriak be-
te-bete dauzkat. Irrati, tele-
bista eta egunkariet erruz eman dituzte berri-
lariak. Birmoldaketa gogorra aipatu izan da, urte
gutxiaren buruan desagertzea, aktoan itsea...

Hitzegin dutenak politikoko eta laguntzaileak,
Administrazioak eta ingurukoak izan dira. Anali-
si askoren ondorioztat saldu digute erabakia,
zientifikotzat, teknikitzat, etorkizunaren izen-
nekoztat.

Eta, bapatean, azeri egin omen dute, Espiritu
Santuak denei batera amasa eman balie bezala.
Esan dutena aldatu, aldrebestu, ukatu. Berdin dio.

Orain, seguru, moldaketa berri bat planteatuko
dute azeria. Bat gehiago. Partxeoa. Adabaki bat
gehiago.

Nork ez daki ikuspegi ekonomiko huts batetik
erabakia era batekoa izan daitekeela eta beste ba-
tekoa, oso desberdina, ikuspegi sozialetik edota
politikotik? Hori ez da, ordea, nik adierazi nahi
dudana. Bestelako hitzak dira nagusi auzi hone-
tan: plangintza eta iterear lantzea. Horretarako
dago Administrazioa eta horretarako politikoko.
Ez lekuan lekuko eta unean uneko partxeo beran-
tziarretan ibiltzeko.

Egun hauetan, kasualitatez, Mikel Navarro
irakasleak esanak irakurri ditut, elkarriketa ba-
tean. Argi eta garbi hitzeginen dago honek, eta ba-
daki zertaz ari den. Bere hitzekin burutuko dut
nerea:

«Doikuntzak egin behar direla garbi dago, eta
zenbat eta beranduago egin okerrago. Arzoa da
Administrazioak ebakuntza bakarrik daukala go-
goan. Ez da konturatzan horrekin batera planifi-
kazioa eta iterear landu behar direla, baina mol-
daketera uko egiteak ez dauka zentzurik».

The Guardian

Sinn Feinekin hitzegiteko garaia

IRaren adar politikoa den Sinn
Fein-ekin elkarriketan hasteak
izan behar du konponbiderako abia-
puntua. Eztabaidarako, baina ez de-
rigorrez kontzesiorako, honako bi
baldintzak beharko liriteke: bial-
detako suetena eta tropak erretira-
tzeko britainiarren konprome-
zua.(...)


Gobernu britainiarraren jarrera
ofiziala —helburu politikokoak lor-
tzeko indarkeria erabiltzen dutene-
kin inoiz ez esertzera— errefusatu
egin beharko litzateke. Europaren
iragan kolonialari begirada bota-
tzea besterik ez dugu egin behar,
'hiltzaile', 'gaizkile' eta 'terrorista'
esaten genienak, errepresio Poli-
zialak huts egin ondoren, mahaira
gonbidatu genuenela oiroitzeko:
Smuts, Kenyata, Mugabe, hiru bai-
no ez aipatzearen. Hego Afrikan,
garai batean 'terrorista' zen Nelson
Mandela, bera espetxean sartu zue-
narekin esertzten da orain.

RONAN BENNET

• egin Erabakitzeke dauden askatasunak

Sintoma txarra da, herri honetako
klase politiko jakin bat historiko

HEMEROTEKA



BILDAY / INTERNATIONAL HERALD TRIBUNE

jartzea autodeterminazio gaia ez-
tabaidan jartzen den bakoitzean.
Baina eskubide hori zalantzan jar-
tzen denean —beste edozein beza-
la— demokrazia beraren izaera jar-
tzen da zalantzan, ez bait da oso
ulergarria benetako demokratikoak
direnek Giza Eskubideen Aldarri-
kaparen letra eta izpiritua batere
kontutan ez hartzea; Aldarrikapen
horretako I Zatikio lehen artikuluan
honakoa agertzen da, hain zuzen
ere: 'Herri guztiek dute autodeter-
minaziorako eskubidea...'.(...)

Baina analisi hori, edozein ka-
sutan, ez litzateke izango ez zintzoa
eta ezta bidezkoa ere, ez balego on-
dorengoaren ueste osoa, alegia, au-
todeterminazio eskubidea lortzeko
oztopo bakarra ez direla aipatu bo-
tere faktikoak; oztopo dela baita ere

neurri handi batean ETA erakunde
terrorista, benetako euskal botere
faktikoa.

GINES CERVANTES AGUADE

• EL MUNDO

Rekalderen 'falsilla'

Aste honetan Bizkaiko Aboka-
tuen Elkargoko txosten baten berri
izan dugu, eta argi utzi du polizi
egoitzetan ez direla errespetatzen
atxilotuen giza eskubideak. Justizia
saiburuaren erantzuna honakoa
izan da: salatzen diren kasuak oso
bakanak dira; txostena anbigua eta
zehazgabea da; egileak Herri Ba-

tasunako abokatuak izan daitezke.

Agian amaitzeaz dagoen idealista
baten belaundikioa naiz. Baina
Justizia saiburuarengandik beste
zerbait espero nuen. Horrelako gau-
zak gertatzeak —salbuespenak izan
arren— zenbat kezkatzen diot
adieraztea espero nuen: jasotako
informazioa probatzea bere espaa-
rria zehazteko eta, gizakien esku-
bidea eta duintasuna defendatzen
laguntzeagatik Abokatuaren Elkar-
goari eskerrak eman ondoren, egoe-
ra konpontzeko zer egingo duen
adieraztea. Izan ere, txostenak be-
rak lana erraztu egiten dio 42 pro-
posamenekin.

MARIANO FERRER

• SUD OUEST

Erlojua

FIS alderdiak denborarekin jo-
katzea aukeratu du, berarekin
lehenbailehen amaitzea nahi duen
boterearen aurka. Arrazoak batek
baino gehiagok bultzatzen dute FIS
alderdia horretara. FIS alderdiak
oso aukera gutxi izango lituzke Ar-
madarekin horrelako borroka odol-
tsuan garaile irauteko. Beraz, egun-
go egocoran, armarik onena legahi-
tate gutxi daukan erregimen horri
aurre egitea da. Azken finean, es-
trategiaren inguruan banaturik, bu-
ruzagi islamistak denborarekin jo-
katzea interesatzen zaie. botera
agerian utziz.

PAUL MEUNIER

ZUZENDARIARI

Autobidea, Leader eta Larraun

«Herri Batasunaren (zo-
naldekoa) nire kontrako
kanpaina zikina da hau»
zioen Jose M^o Ayerdi Le-
kuberriko kontzejuko alkate-
ak bertako zenbait Udal eta
kontzejuetako alkateek bere
aurka egindako salaketa pu-
blikoaren aurrean *Leader*
programaren gestioan izan
duen parte hartzea dela eta.
«HBkoek ezin izan dute jasan
nire jokoa eta zintzoa eta zuzena
autobidearen proiektu ofi-
zialaren defentsan, horregatik
zigortu nahi naute».

Nazka-nazka eginak
gauzate politikoko eta sasipo-
litikoko gai honekin. Lehia
bizian daukagu zein baino
zein fidelago autobidearen
trazaketa hori. Beste batzuk,
Ayerdiren kasua, beren pro-
mozio pertsonalean erabili
dute autobidea. Gobernuaren
peoi zintzoaren papera joko-
tzearen truke, bertako kriti-
kari eta oposizioa estaltzeko
helburuarekin. Paper honi
eutsiz, Lekuberriariko 'Lu-
rraldeak' proposatzen zituen
hobekuntzak ukatzeria iritsi
da, baina hori bai, ez dakit
zein interesen ikuspegitik al-
daketak proposatu eta egin

dira, bai Lekuberriko lurre-
tan eta bai Mugirokoetan
bertakoek eskatu gabe
(Ayerdik baluke zer esanik
honetan). Trazaketa ofiziala
aldazina da, diote gure poli-
tikoko eta oraindik 4 kilome-
tro egin ez eta aldatetaz jos-
irik. Eta zer esan egin bidean
diren beste lur horietan? Az-
pirozen sortu zaien arazo
jakin izan balute (aurretik
pentsatzekoa zen teknikoak
nor baziren) hobeki aztert-
tako proiektua egingo luke-
ten, baina zer axola! Azpi-
rozko biztanleak bigarren
mailakoak direnez, edozein
gauza agoantatu behar dute.
Gorritiko Pagozelai parajea
pasatzeko beharrezkoa al zen
egiten ari diren ia 100 metro-
ko altuera duen trintxera?
Zergatik ez dute ezta aztertu
ere Gorritiko herria egin
zuen alegazioa eta tunel bat
egitea esudiatu? Horrela ja-
rraitzen badute, autobide hau
Europarentzako, mendial-
dean errepede bat nola egin
behar ez denaren adibide eta
ikurra bihurtuko da.

Aldaketak trazuaduen, izan,
badira, baina orain artekoak
ez dute ezer ikuskerorik izan,
ez arrazoik ekologikoekin eta
herrietako sensibilitateare-
kin beren lurarretiko. Paste-
leok eta proiektuak dituen

akats galantak izan dira egin
diren aldatetien motiboak,
eta noski, autobidea-behian-
errapatetik edateko bolun-
tarioak, ez ziren eta ez dira
faltako. Nola galdu horrelako
aukera karta markatuekin
jokatzen duten sasi-politiko
horiek (goikoak eta behe-
koak)? Jakina, goikoek
ematen duten expenplua ja-
rraitzen dute behekoak eta
horrela doa elur pilota han-
dizten. Hala ere, noizean behin
goian aldatetak gertatzen di-
renean, behekoen trapu zahar
zikin batzuk agerian geratzen
dira, lehenbailehen estaltzea
komeni direnak.

Ah! *Leader* programaren
gestioagatik Ayerdiren kon-
trako salaketa aurkeztu duten
alkateen artean kolore guz-
tietakoak daude, baita bere
oraingo alderdiaren (EA) in-
gurun dabilzanak ere. Ea
nola azaltzen dien eskualde-
ko alkateei 'aukera berdina-
tasunaren' printzipioa eta
nola aplikatu duen hau ber-
tan. Bestea, HBri errua le-
poratzea eta abar, argumen-
turik ez daukan jendearen
irtenbidea bihurtu da, baina
arazoari ihes egitea besterik
ez da.

JOXEAN AZPIROZ
Larraun (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Nafarroako Ihauteriak

Ihauteriki ihauteriak
desmadre aunitzen zita
Arano, Leitza, Areso. Ituren
Sunbilla pare jarrita
hauek ta bertze herriak ere
ditzazkeze bisita
estres guziak kanporatzeko
paisaia bait da polita
zatozte lasai trapu zaharrak
mozorroturik jantzita.

LONTXO ABURUZA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JUAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIAN ETXEZAHARRETA
IÑAKI URILA

Kontseilari Ordezakari:
JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Gerentea:
INMA GOMILA

Egunkaria

Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Eredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioiak / 20.160 Lasarte-Oria /
☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza sozila, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1, / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 /
Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1.ezker, / 01005 Gasteiz / Telef: 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / Telef: 17 80 78/79 /
Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.ezk. / 48002 Bilbo / Telef: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia katea, / 64100 Baiona / Telef: 59 59 35 75 /
Faxa: 59 25 75 11